

Notitia Vasconiae, Notitia Mundi



FERNANDO MENDIOLA GONZALO

(Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

JIMENO ARANGUREN, ROLDÁN (dir.) (2019)

Notitia Vasconiae. Diccionario de historiadores, juristas y pensadores políticos de Vasconia. Tomo I: Antigüedad, Edad Media y Moderna
Madrid, Marcial Pons, Ediciones Jurídicas y Sociales

ROLDÁN JIMENO ARANGUREN (zuz.) (2020)

Notitia vasconiae. Baskoniako historialarien, legelarien eta pentsalari politikoen hiztegia. I. Liburukia: Antzinaroa, Erdi aroa eta Aro Modernoa
Donostia, Iura Vasconiae Fundazioa

Notitia Vasconiae, Notitia Mundi

Argitaratze bidean dago euskal historiografiaren ikerketarako proiekturik garrantzitsuenetako bat izango dena, *Notitia Vasconiae izenburuko* hiztegia, alegia, eta bilduma osoak izango dituen 4 liburukietatik lehenengoa dugu esku artean iadanik, Antzinaroa, Erdi Aroa eta Aro Modernoari dagokiona. Bigarren liburukia, Aro Garaikideari buruzko lehena (1793-1876 urte bitartekoa), 2021ko hasierako hilabeteotan argitaratuko da, eta azkenengo biak, berriz, hurrengo urteotan helduko zaizkigu.

Erabilera ezberdinak izan ditzakete hiztegi historikoeak, helburu, estilo edota ezaugarri ezberdinetako ikerketarako lagungarri izanik. Kasu honetan, *Iura Vasconiae Fundazioak* bultzaturiko hiztegi hau, historialarientzako ez ezik, publiko zabalarentzat, «Baskoniako iragan historikoaren berri izan nahi duen eta lan espezializatuetara iristeko tresnarik ez duen edonorentzat» pentsatua dago, sarreran Roldán Jimenok azaltzen duen moduan. Iraganera hurbiltzeko tresna, horretarako bidea iraganean euskal lurraldeei buruzko ikerketa edota hausnarketa idatziak plazaratu dituzten egileen ezagutza izanik. Egile multzo handia, alegia, Antzinarotik gaur egun arte, Euskal Herriari buruz diziplina ezberdinetatik idatzi dutenak, hiztegian jasotako gehienak historialariak, legelariak edota pentsalari politikoak izanik.

Azken finean, hiztegiaren koordinatzaileak ziurtasun sendo batetik abiatu dira: historian zehar, azken bi milurtekotan, anitzak, batzuetan antzekoak, bestetan kon-

trajarriak, izan dira euskal lurraldeei buruzko ikerketak. Denboran zehar anitzak, ideologia aldetik anitzak, diziplina aldetik anitzak ere... eta hala ere, guztiek nolabaiteko koherentzia mantentzen dute. Izan ere, hitzaurrean Gregorio Monreak azaltzen duen bezala, hiztegiaren bultzatzaileak mendeetan erroturiko tradizio historiografiko sendo batean oinarritzen dira, zeinaren arabera egokia den Baskonia edo antzeko kontzeptu baten erabilera mendebaldeko Pirinioen bi aldeotan zabaltzen diren lurraldeak izendatzeko. Tradizio horri erreparatu, hain zuzen ere, XVII. mendean Arnaut Oihenart zuberotar legelariak Parisen argitaraturiko *Notitia utriusque Vasconiae* lana inspirazio iturri hartu dute izenbururako.

Ez dira ari, eta hori argi gelditzen da hitzaurrean bertan, subjektu politiko egonkor eta ahistoriko bati buruz. Ez zaigu hemen aurkezten historizismoaren bertsio berrietua, XXI. mendean hasieran XIX. mendeko tradizio zaharberrietua, apaingarri berriekin atondua. Horren ordez, begirada anitzen kaleidoskopioa dugu hiztegia, Pirinioen inguruko eremu kultural baten inguruan. Izan, ere, aintzat hartuta historialariak aspaldi onartu dutela Baskonia kultural bat dagoela, bilduma osatzen duten lau aletan horren inguruko hurbilketak hobeki ezagutzeko parada izanen dugu. Begirada dinamiko hau, beraz, historizismo politikotik urrun, eta dinamismo hau lana osatzeko eta antolatzeo irizpideetan aurki dezakegu.

Alde batetik, begirada hauek azken bi mila urteetan jasotakoak ditugu, eta horrela berriro ere ikusten ahal dugu, euskal kasuan, historia produktu historikoa dela, bere garaiak baldintzatua... Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea lanean jasotako historialari zein pentsalariak modu ezberdinean ulertu eta irudikatu dituztela Basconia eta euskal lurraldeak. Batzuek nolabaiteko batasuna azpimarratu dute, beste batzuek eskualde konkretu batean jarri dute bere arreta, eta beste batzuek mendeetan zehar garatu eta sendotu diren espainiar eta frantziar estatuen egituratze prozesutik abiatu dituzte haien ikerketak. Kasu batzuetan, lurralde konkretu batzuk izan dira aztergai, beste batzuetan, konjuntioak hartu du pisua...

Horretaz gain, ikuspegi dinamiko hori hiztegian jasotako ahotsen jatorrien aniztasunean ere islatzen da. Egile askok euskal jatorria izanda ere, nonahi agertuko zaizkigu euskal lurraldeei buruzko informazioa zabaldu dutenak. Guzti horien bidez, Euskal Herrira zuzendutako begiradak munduko beste eremu hurbil eta urrunekin loturik agertzen dira hiztegian zehar, azken urteotako historiografiak aldarrikatzen duen osagarritasuna praktikan jarritz, tokian tokiko eta mundu mailako perspektiben artekoa, alegia. Azken batean, *Notitia Vasconiae* hau *Notitia Mundi* ere bada, Erromatar Inperioarena, Al Andalusekoa, europar inperialismoarena, Espainiar zein Frantziar estatuen egituratze prozesuarena, edota XX. mendeko bi mundu gerrateena, besteak beste. Lehengo liburukian, adibidez, eskualde ezberdinetako autoreak agertzen zaizkigu jasoak: euskal lurraldeetakoak ez ezik, Grezia klasikoarenak, Erromatar Inperiokoak, bisigodoak, frankoak, Bizantziokoak, Asturiasekoak, Gaztela eta Leongoak, Bearnokoak, Aragoikoak, Al Andalusekoak, Portugalekoak eta Europako hainbat erresumakoak ere.

Aniztasun hau bermatzeko ezinbesteko tresna batzorde zientifikoa zein egileen zerrenda zabala osatzeko irizpideak izan dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea den Roldan Jimeno Arangurenek zuzendu du egitasmoa bere lehen bi liburukietan, eta horren lekukoa unibertsitate bereko irakaslea izan den Juan Mada-riaga Orbeari pasatu dio proiektuaren bigarren eperako. Dena den, zuzendariekin batera lanaren irizpideak eta oinarri metodologikoak 7 unibertsitate ezberdinetako ikerlarik osaturiko Batzorde Zientifikoak hartu ditu bere gain, lurraldetasunaren eta jabetzaren aldetik ere aniztasuna islatuz, partaide hauek administrazio ezberdi- netako 5 unibertsitate publikoko (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Uni- bertsitate Publikoa, University of Nevada, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Universidad de Cantabria) eta jabetza pribatu erlijiosoko beste bietako (Deustuko Unibertsitate eta Nafarroako Unibertsitatea) ikerlariak izanik. Aniztasun hau, bes- talde, are nabariago da ahotsen egileen zerrendari erreparatzen badiogu. Eskuar- tean dugun lehenengo liburuki honetan, adibidez, 22 ikerketa-zentroetako 47 egilek hartu dute parte.

Anitza ez ezik, bizia ere izateko borondatea du proiektu honek, zabalpen han- dikoa. Horretarako, historiografian tradizio sendoa duten hiztegi entziklopedikoen eremuan kokatzen da, sarreran jasotzen diren hainbat adibide esanguratsuren adibi- dea hartuta. Gainera, hizkuntza ezberdinetara itzultze prozesuan dago, eta lehenen- go liburuki hau euskaraz eta gazteleraz dago eskuragarri iadanik, azken hizkuntza honetako bertsioa Marcial Pons argitaletxearen eskutik helduta. Ingelese- zko ber- tsioa Nevadako Unibertsitatearen bidez argitaratuko da, eta ez dira baztertzen beste itzulpen batzuk, frantsesera bereziki. Honekin lotuta, *Iure Vasconiae Fundazioak* asmoa du hiztegia online eskuragarri jartzeko, bere liburutegi digitalean, modu honetan ahots ezberdinak eguneratu ahal izateko.

Proiektu bizia, beraz, etorkizun hurbilean, bere osotasunean argitaraturik dagoen- ean, ezinbesteko erreferentzia bihurtuko dena historiografian. Euskal historiogra- fian, noski, baina inguruko herrialdeen historiografian ere, zientzian mugak lausoak izaten baitira gehienetan, zorionez. Euskal Herria hobeki ezagutzeko tresna, eta horrekin batera euskal lurraldeei buruzko azalpen eta ikuspegi ezberdinak hobeki ezagutzeko tresna ere. Euskal lurraldeak, bai, unitate ezberdin eta aldakorretan inte- graturiko lurraldeak, eskualde aunitzetako egile zein jendearekin etengabeko hartu -emanetan. *Notitia Vasconiae*, bai, eta horrekin batera, *Notitia Mundi* ere.